tsak egin behar diren. Urrats horiek «irizpide garbien» arabera egin beharko liratekeela gaineratu dute: batetik, kontuan hartuta Iruñerriko hainbat herritan etxebizitza berriak egiteko dauden proiektuak; eta, bestetik, plangintza orekatua eginez.

PSNko parlamentario Fernando Purasek «kudeaketa publikoa» eskatu du. IUN-NEBko ordezkariek, etxebizitza politika berria. «Galsoro bat Nafarroako bigarren hiri bilakatzeak arlo guztietan izanen ditu ondorioak», erran du Ion Erro koordinatzaile nagusiak.

Larritzat jo du Gendulaingo proiektua Aralarreko Txentxo Jimenezek, bestalde. «Burguete izanen da Nafarroako historian lurraldea gutxien antolatu duen kontseilaria; kontrakoa egin du».

EAk Gendulainen izanen diren zerbitzuekin du kezka. «19.000 etxebizitza eraikiko dituztela diote, baina deus ere ez han biziko direnentzat izanen diren zerbitzuei buruz».

Kritika guztiak gorabehera, bereari eutsi dio Gobernuak. «Ziur gaude Nafarroako herritar gehienek bat egiten dutela proiektuarekin», azpimarratu du Alberto Catalan bozeramaileak.

**ALKATEAK, KONTRA.** Alderdien kritikak ez dira Gobernuak entzun behar izan dituen bakarrak. Iruñerrian hemezortzi herrik egiten dute bat Lurzoruaren Mahaian. Haietako zazpik mahai gainean jarri dute datu bat: mahaian dauden herrien planen arabera, 72.700 etxebizitza daude aurreikusita, Gendulain kontuan hartu gabe. Arangurenek, Zizur zendeak, Oltzak, Galarrek, Uhartek eta Berriobeitik egin dute Gendulaingo proiektuaren kontra.



**Gendulaingo lurretako ikuspegia, Nafarroako bigarren hiria sortu nahi duten lekua.** LANDER FERNANDEZ ARROIABE / ARGAZKI PRESS

# «Sustatzaileek eta eraikitzaileek negozio itzela egin dute»

## Ustelkeriaren kontra lan egiten duen Kontuz! elkarteak irregulartasunak salatu ditu Gendulainen

**E. E.**
Iruñea

Ustelkeriaren kontrako erabiltzaileen, kontsumitzaileen eta zergadunen elkartea da Kontuz!, eta Gendulaingo proiektuaren aurkako lanari ekin dio, buru-belarri. Lurren salerosketan hainbat irregulartasun gertatu dela azpimarratu du elkarteko presidente Jose Ramon Urtasunek, eta operazioak enpresa eraikitzaileei eta sustatzaileei egin diela mesede, batez ere. «Negozio itzela egin dute».

Negozioa, hori da kontua, Urtasunen hitzetan. Ez, ordea, beharra. «Ez da gizarte arazo bat, ez da etxebizitza arazo bat; ez dago beharrik».

Gobernuak logikak eskatzen duena ere ez duela bete gaineratu du Urtasunek: «Lurra zuzenean eskuratu beharrean, sustatzaileei eta eraikitzaileei erosi die: eta horrek, noski, garestitu du lurraren prezioa».

**IRREGULARTASUNAK.** Lurra garestitzeaz gain, prozeduran hamaika irregulartasun izan direla nabarmendu du Kontuz! elkarteko buruak. Irregulartasunak izan dira, batetik, Gobernuak lurzoruaren lehiaketa publikoa antolatu zuenean, kontratazio mahaia ez zuelako osatu. «Eta, berez, mahai horrek aztertu behar zituen jasotako eskaintzak».

Prozedurak, bestetik, Zizur zendeako Udalari egin dio kalte, Urtasunek erran duenez. «Sustatzaileek erositakoak landa lurrak balira ordaindu diete jabeei, Gendulaingo kondearen oinordekoei; argi dago, ordea, eraikitzeko erosi dituztela. Eraikitzeko lurrak balira bezala salduz gero, ordea, jabeek hamabi milioi euro ordaindu behar zizkioten Zizur zendeako Udalari, gainbalioaren zergagatik».

> **Lurrak zuzenean eskuratu beharrean, sustatzaileei eta eraikitzaileei erosi dizkie Nafarroako Gobernuak**

Oinordekoek egin dituzten urratsetan kontu ilun gehiago sumatu dute Kontuz! elkartekoek. «Oinordekoek beren lurrak bitan zatitu dituzte, hori beharrezkoa baita saldu ahal izateko. Udalak, ordea, ez die hori egiteko baimenik eman, lur horietan, besteak beste, eremu komunalak badirelako. Done Jakue bidea pasatzen da hortik».

Udalak baimena eman ez arren, notario batek ontzat jo du lurren zatiketa, Urtasunen hitzetan. «Eta beste batek, ontzat jo du sustatzaileek Gobernuari egindako lurren salmenta».

Irregulartasun gehiago. Horixe dio Urtasunek. Izan ere, dirutan ordaindu beharrean, Gobernuak eraikitzeko eskubideak eman dizkie sustatzaileei Gendulainen. «Hori ezin da egin, ez baita prezio zehatzik ezartzen». Urtasunek gaineratu du Gobernua presaka ari dela afera horretan. «Duela bost hilabetera arte, Gendulain izatekotan etorkizuneko beharrak asetzeko proiektua zen; orain, bost urte barru jendea han biziko dela dio Gobernuak. Herritarren beharrei so egin ordez, eraikitzaileen eta sustatzaileen interesen alde egitea da Gobernuaren ardura».

alokabide

(2) ADMINISTRARI-LAGUNTZAILEAK, BEZEROAREN ARRETA ZERBITZURAKO
GASTEIZ Erref.: 8162 BILBO Erref.: 8163
17.155,53 € urtean (gordinak)

(1) ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA - ADMINISTRAZIO-SAILA
GASTEIZ Erref.: 8164
17.155,53 € urtean (gordinak)

(1) ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA - ASEA
GASTEIZ Erref.: 8165
17.155,53 € urtean (gordinak)

(1) ERAIKINEN MANTENTZE-LANETAKO TEKNIKARIA
(ETXEBIZITZAK BERRIKUSI ETA IKUSKATZEKO SAILA - GASTEIZ)
Erref.: 8166
35.383 € urtean (gordinak)

www.seleccionformacion.com

SELECCION & FORMACION
Selección de personal
www.seleccionformacion.com